

## AURELIA ARKOTXA

Aurelia Arkotxa Baigorri (Nafarroa Beherea) sortu zen, 1953ko urriaren 3an.

Hautzarotik bizi izan da Hendaian. Idazle eta unibertsitateko katedraduna euskal letretan Bordeleko Michel de Montaigne - Bordeaux 3 Unibertsitatean. Baionako Iker-CNRSko ikerlari taldeko partaidea da.

Euskal literatura klasikoa, literatur teoria eta itzulpena irakasten ditu Baionako fakultatean.

2003ko urtarrilaren 31n, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Hastapenetik, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeko kidea da.

Poesian idatzi dituen lanak: *Atari ahantziak* (Pamiela, 1993), *Septentrio* (Alberdania, 2001 euskaraz), *Septentrio* (berridatzia eta bermoldakuntza frantsesez, Atelier du héron, Bruselas 2006). *Septentrio*-ren gaztelerazko itzulpena, Eli Tolarretxipi eta Arantza Fernandez itzultzaileak (Alberdania 2007)

*Berria* egunkarian kronika poetiko bat idazten du ostiralero 2004. urtetik.

Poeta bezala, aldizkari ugaritan parte hartu izan du: *Maiatz*, *Mazantini*, *Zurgai*, *Garziarena*, *Hegats*, etab.

Bildumetan ere parte hartu izan du: *Gutiziak*, *Mujeres poetas en el País Vasco*, *Ponte de palabras*, etab.

Ikerlari bezala, azpimarratzekoak dira, besteak beste, *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti (1933 – 1975)*, (ASJU, Donostia 1993), *Euskal kritika gaur*, Mari Jose Olaziregirekin batera (Eusko Ikaskuntza, Donostia 2002), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, Literatura gaiak, Lourdes Otaegirekin batera (Euskaltzaindia, Bilbo 2003).

Azken urte hauetan artikulu zientifikoak *Lapurdum*-en idazten ditu bereziki, baina beste aldizkari ugaritan agertu izan dira ere, hala nola *Iker*, *Euskera*, *Hegats*, *Sancho el Sabio*, *Jakin*, etab.